

Koldo Mitxelena (1915-1987)

Oarso, 23. zk., 1988: 85-86.

Sendia, etxea, Errenteria, haurtzaroa

Koldo Mitxelena Errenteriako Goikokalean jaio zen, zurezko eskailera estu batzu igo eta Santa Maria-ko elizari leihotik teilatua ikusten zaion gain batean, orain hirurogei eta hamabi urte.

Mila bederatziehun eta hamabosteko abuztuak 20 zituela.

Errenteria, 5.000 biztanleko herria zen; denak ezizenez ezagutzen ziren; Koldoren amaren aitari *Ixtaban-frantsesa* deitzen zioten; Donibane Lohitzungo irule bat zen, eta hemeretzigarren gizaldiaren erdialdera hemengo hirulegi handia sortu zutenean etorri zen honuntz lanera. Gero, Errenteria bertoko gzte batekin ezkondu zen. Hala, Koldoren ama, Joxepa Iñaxi Elissalt, hemen beheraxiago zegoen Erdikokalean jaio zen, bere anai guztiak bezala.

Hau amaren aldetik; baina bestetik, aita Donostian jaioa zen eta txikitan gurasoekin Errenteriako "Larretxipi" baserrira etorri zen, eta herriak berez hain erraz egiten dituen aldaketak direla medio: "Larretxipi" deitu zioten. Ez zuen aitak errenterriarra ez zela aitortu nahi izaten, bere aita ere errenterriarra baitzen, oiartzuar batekin ezkondua.

Aiton-amonak ezagutu zituen galdetu nionean, ezetz esan zidan, eta: "Konturatu zaite –erantsi zuen– nire aitak, Karlos VII. 1873an itzuli zenean, gerratean ikusia zuen! Garai hartan nire aita Tolosa inguruko, Alkizako, baserri batean egotea suertatu bait zitzaion, eta hirira jaitsi zen erregegaia pasatzen ikustera; oinez omen zihoan, eta askotan aipatzen zuen nola herriko andre bat hurbildu zitzaion eskuan mun ematera, eta esan omen zion: "Nik dos bexes, jauna"; ez behin, bi aldiz alajaina! Hau amorrus esaten omen zuen aitak.

"Konturatuko zara orduan, esaten dit nire aita, mutilkoskorra zela ere, orain ehun urte hori ikusteko gauza izan bazen, ez zela gaztea ni 1915an jaio nintzenean!... berrogeita hamar urte inguru gutxienez.

"Ez, nire kasuan, nire aiton-amonak nire gurasoak berak izan ziren. Ez nuen besterik ezagutu. Entzun bai. Nire aitona lapurtarraz asko entzun nuen etxean, noski, ama gerrondoarte bizi izan baitzen, eta salan genuen argazki batean meneluxe ikusten nuen aitona Elissalt. Gero ikusi dut, haren antza hartzen joan naizela, eta ez aitarena, nire aita motz-zabala baitzen...

Koldoren aita otargina zen, *xexteroa*, eta etxe azpian bertan zuen lantokia. Leiho hartatik begira hiru urtetan egondu zen Koldo bere oin batean irten zitzaion tumore-xuri bat zela eta; Leremboure sendagilearena eraman zuten.

Horregatik, ez zuen beste haurrekin jostatzeko aukerarik izan zortzi urte bete zituen arte; bestalde, ordea, goiz ikasi zuen irakurtzen, eta aitaren lantokian irakurri egin zuen

asko; euskaraz, bereziki, *Zeruko Argia*, batez ere, eta oinez ezin zuena imajinazio bidez egin zituen Salgari eta Julio Vernerren liburuak direla medio, horiek erdaraz, noski.

Gerra, gerrondoa, familia

Gerra ametsgaizto bat izan zen Koldorentzat. Ez zuen inoiz horrelakorik espero, esaten zidan, et bere hitzetan: "geure burua defendatu beharrean aurkitu ginen".

"Abertzale egin ninduten etxean; esango neuke, nire aita izan zela Erreteriako lehen abertzalea... Baina ez ninduten alderdi bateko eraginetara bultzatzen. Hala ere, eta honek zerbait esan nahi du. Eusko-Gaztedi Kiroltzalean aurkitu nintzen Campionek Erreteriako Batzoki berria hitzaldi batez inauguratu zuenean.

Gerrea lehertu zenean hogeitaz hamar urte zituen beteak. "Itxarkundia" rako eraman zuen izena, bere kirol lagunekin batera; hauen artean, Koldo hil zen egun berean heriotza iritxi zitzaion Jose Estornes Lasa ere hor zen; argazki bat lekuko. Hala, gerra zurbilkaragarri hari eman zion erantzuna hauxe izan zen; Santoña arte; esan berria zidan Bilbotik Santoñarte bestek eraman zutela, gaisorik aurkitzen baitzen; hiru hilabete egin zituen Dueson, gero Larrinagako gartzelan, beste bederatzita hilabete; hemendik Burgosera, beste lau urte ta erdi luze-luze egitera.

Bai, gorroterrian galtzea suertatzen zaionarentzat errukirik ez!, eta prezio gogorra ordaindu behar izan zuen kalte handirik egin gabeko Koldok: bizia txiripaz salbu lortu bazuen ere, ia zortzi urteko espetxe zigorra bete arazi zioten. Lehenengo sei urteko gartzelatik etxeratu zenean, amak euskal soiltasunez esan omen zion: "Etorri al zara?". Eta beste bi urteko gartzelaldian zegoela iritxi zitzaion ama hil zenaren berria.

Behin, beretzat hizketan bezala egin zidan konfidentzia: "behar bada, ez nintzen amarekin ondoegi portatu"...

Min hau berekin zuen Koldok, huts honen erru txikienik ere ez bazuen ere.

Matilde, bere emazte on eta adoretua, izan zuen bere ondoan beti, eta Itziar (1950) eta Rafael (1952) ekarri zizkion.

Utziko ditugu gaurkoz, Koldo Mitxelenak ikasi eta irakatsi zituen gauza franko eta handiak alde batera; ez baztertera, alafede!; ez baita unea dena esateko; Koldoren lan batzu aipatzeko baizik, eta nire ustez gure herriko ahotsa, gur hizkuntza, oraindik bizi dadin egin dituen lanen artean garaiena, erraldoiena, apatuko dut.

Euskara batua

Nik uste, Koldo Mitxelenaren ikerketak eta erakuspenak zerbaitetan gauzatua bezala erakus nahi dugunean, *euskara batua* irteten zaigula bihotzeko esker onez.

Ez naiz orain hizkuntzalariar ariko, horretarako aritu baita duinki Haristchelhar jauna; baizik eta zuen gisatasunaren alderdi bat erakusteko asmoz. Honetarako, Patxi Altunak jasotako bere *Idazlan hautatuak delako liburu ederrean adierazkorren* iruditzen zaidan lana: "Pro domo" izan daiteke; neuk, labor izan behar dudan honetan, hauxe

aukeratu dut Koldo *idazle* eta *pentsalari* eta *abertzale* eta *gizonaren* jarrera ondoen erakusteko.

"Pro domo" izeneko lan hau *Egan* aldizkarian agertu zen 1970an, eta sarrera bertatik esaten du: izenburu do titulu honekin, zera adierazi nahi duela, eta hara hemen bere hitzak: "Gure etxearen alde, guztion etxearen alde", honetaz mintzatu nahi lukela.

Mitxelena, *gizona*, erakusteko neurri hoberik ez.

Parisen irakasle izan zen urte hartatik itzuli zenean. Goikokaleko etxean pilatuak aurkitu ztuen etxetik irten zenetik heltzen joan ziren *Zeruko Argiak*, eta patxaran denak begiz pasa eta tarteka irakurtzeko lana egin ondoren, eta Koldok bazekien galbahea nola pasa!, idatzi zuen saiakera antzeko artikulua eder hau. Ez ditut hemen Koldok bere burua eta lanak defendatzeko ukitzen dituen kontrarioen izenak aipatuko; eta bai, batez ere, bere argudioak, hauen funtsea, eta baita argudio honek adierazteko modua, osorik berea, konprometitua, eta zehatza, baina neurritua, bere barruko zaldi bizi eta kementsuari bridetatik eusten ahaleginduaz.

"Amaren hizkuntza"

"Neuk –esaten du– nahi nuen irakaspide den euskara, ikastoletan eta ikastoletarik gora erabiltzen den euskara, ez daiteke izan, *eta ez da*, inoren "amaren hizkuntza". Zuk, esate baterako, *semiana*, esango duzu, eta zure hurrei *semearena* irakasten diote. Gauza bat da *aho-hizkuntza*, eta bestea, arras bestea!, *hizkuntza idatzia*.

"Eta hau edozein hizkuntzetan", noski.

Euskaraz berdin gertatzen da, gurea ere hizkuntza baita!

"Ez dut inoiz esan –nik behinik ez– dio Koldok gure hizkuntzaren batasuna dela soinean daramazkien gaitz guztien erremedioa: besterik diona, ez da egiazki mintzatzen" (...) "Ez da aski gure hizkuntzaren batasuna euskarak iraun dezan, ez hurrik eman ere; ez da aski, baina premiazkoa da, batasunik gabe ez baitu iraungo bizi garen eta biharko mundu honetan. Batasuna eginik ere, gal daiteke; batasunik gabe gal.

"Batasunerako biderik onean"

"Batzentzat biderik onena, berez, besterik litzake: gure hizkuntza dagoen dagoenean gordetzea, euskalki eta euskalkitxo, hiri eta hirixka guztietako nabardurak bizirik dauzkala. Bide horrek ere badu, haatik, bere "koxka". Batasunez horrek, hain ederra izanik, geure bizkarrek inolaz ezin eraman dezaketen karga ezartzen digu gainean. Batasunik ezak behartzen gaitu, nor bagara, *euskalki guztien –handi eta txikien– berri jakitera euskaldun bakoitzaren "amaren hizkuntza" ezagutzera*.

"Hori ezinezkoa izanik, batasun bidea gelditzen zaitu soil-soilik (...) Zer dugu, halaz ere, hobe? Horrelako euskara eskasa ala inolazko ez dena, hilik dagoelako?

"Arantzazu"

"Arantzazuko lanak prestatzeko hautatu zuten batzordea (eta ni bestek hautatu ninduten. Ez nuen neure burua hautatu eta, egia esan behar baldin badut, nahiago nuen hautatu izan ez baninduten), bete-lan gisa, batasunerako balio zezakeen eredu baten zenbait ezaugarri nagusi markatzen hasi zen, besteak –gehienak– beste baterako utziaz. Eskubide osoa du nornahik eredu horrek akatsak eta aldrebeskeriak (bai baititu, dudarik gabe) erakusteko, eredia erabat baztertzeko, eta arbuiatzeko ere bai. Baina (Baña... O *baña* madarikatuba! *Baña* infernukoa!, Astarloa frantsizkotarrak zion modura) eskubide osoa eredu eskas horren kontra beste eredu hobe bat aurkezten baldin badigu. Beste eredurik ez baldin badakar, ez du, ene ustez, mintzatzeko eskubiderik"...

"...Arantzazuko batzarren gai *h sartzeta hala h kentzea* izan zela diona ez da egiaz ari. (...) Erabakiak, egia, horrezaz bakarrik hartu ziren, besterik gero hartuko zelakoan, baina ez ginen horrezaz bakarrik mintzatu, ezta gutxiagorik ere. Erabaki horiek, eta geldi bedi argi eta garbi, *hartu* egin baitziren, eta *Euskaltzaindiaren erabaki gisa hartu*, gainera".

"Belaunaldiak"

"Ez gendukeen sekula, ardurarik izan bagendu, utzi behar gizaldien eta belaunaldien arteko borroka heldu den punturaino helzedin. Elkarrekin bizi behar dugu, zenbait urtetan behintzat, herri berean bizi behar dugu, guziok –nork batera, nork bestera– maite dugun herrian. Eta irekirik egon behar du elkarren arteko mintzabideak, nahiz mokoka ari, naiz errietan ekin.

"Gasteak ez omen dituzte gure alde onak ikusten, ez omen dute ezagutzen egin dugun lanaren balioa. Badaiteke; are gehiago, horrela da. Guk, zaharragoek, ez omen dugu haien berri jakin ere nahi. Ezin uka, hori ere.

(...)

"Gazteak ez omen dituzte gure alde onak ikusten, ez (aldizkarietan dela, liburuetan dela, bazkUNETAN dela, ikastoletan dela, erlijio-gaietan dela, politikan dela) funtsezko belaunaldi-borrokaren ageriko ezaugarriak, besterik ez dira, ene ustez.

"Gure artean ditugunak bezainbeste nonnahi, edozein herrialdetan, ikusten direnak.

(...)

"Dagoeneko pentsatu izango du norbaitek demagogiarik errazenari amore emanaz jarri naizela (dirudienez) gazteen alde. Ez dut hala uste. Zenbaitek, lanbidez edo nahaiago baduzu ofizioz, etengabeko harremanak ditugu gazteekin: hala beharrez gertatzen zaigu hori ezinbestean, ez inor baino irekiagoak eta gogo-zabalagoak garelako.

(...)

"Saia gaitzen, eske hori egiten diot ene buruari eta besteri, oraingo gauzak oraingo begiz ikusten, oraingo hauziak oraingo buruz xuritzen.

"Ez gaitzen gal amets-bideetan barrena dio amaitzeko. Koldok: utzi ditzagun ametsak lo gaudenerako. Bereizten gaituzten hauzietan deus ere kendu gabe, ez ditzagun behintzat, setaz eta elkarri ezin amore-emanen, gehi eta zabal. Bizi garelako gabiltza

borrokan. Eta oihu nabarmenen azpitik, z ote dugu somatzen elkarengana garamatzien barren-barrengo dei ixil bat?

"Hala uste dut nik, behinik behin, eta gaizki esanak barkatu".

Horiek dira Koldo Mitxelenaren hitzak.

Amaitzeko esan dezadan neuk, Koldo Mitxelenaren asmo eder hauek adierazi eta gero. *Euskara batua*, euskalkiak kontuan hartuaz, *zientziaz eta kontzientziaz* osaturiko zerbait da; asmatu du, herriak onartu du. Koldo Mitxelenak jarri du, nik uste, eta aspaldiko partez, euskara irabatzeko bidean; ez du gure herriak hau inoiz ahaztuko.